

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2013ko uztailaren 2a. IX. urtea. 2.620. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Zizurkilgo Udalak «garai berri» baten beharra aldarrikatu du

Zizurkilgo Udalak galdeketako gertakarien harira, «gezurren garaia» amaitzea nahi du, eta EAJri kritika zorrotzak egin dizkio

Tolosaldea Txukunek Anoetan, Iruran eta Amasa-Villabonan eginiko galdeketetan %35-40 bitarteko partaidetza zenbatu du **o 2-3**



Zizurkilgo Bilduko hautetsiek prentsaurrekoa eskaini zuten, atzo. ASIER IMAZ

Sanpedrotan ibili dira Asteasu, Areso, Leaburu eta Urkizun

Herriz herri jaiak ospatzen ari dira; beste hainbat ospakizun ere izan da Tolosaldean **o 4-5**



Leaburuko jaietan, txakolin dastaketa egin zuten. JONE AMONARRIZ

Zumardiaundiko kioskoko lanpostua lehiaketara atera da

Tolosako Udalak, kioskoaren ustiapena lehiaketara atera du; proposamenak hilaren 8a baino lehen aurkeztu beharko dira **o 3**

Europako Pista Txapelketarako sailkatu da Ane Iriarte tolosarra

Oriako-Limousin taldeko txirrindulariak Madrilen jokatu den sailkatze proban Europako Txapelketarako txartela eskuratu du **o 6**

Aitor Arevalo da Lauburu Ibarra taldeko entrenatzaile berria

Arevalo gazteak hartu du Juan Pablo Zubelzu 'Txubel'-en lekukoa **o 7**

Herriarteko Pilota Txapelketako finala jokatuko du, Tolosak **o 6**



hitza



Motxilak **salgai 15 eurotan**
Kolorek: Berdea eta beltza

Eskuratzeko deitu
943-655 695
telefono zenbakira
edo pasa HITZAko egoitza.
(Araba etorb. 5 behea · Tolosa)

Atez atekoaren inguruko galdeketek datu eta erreakzio saltsa ekarri dute



Villabonan kazetariak arazoak izan zituzten antolatzaileekin galdeketak irudiak hartzeko. E. MAIZ

Anoeta, Irura eta Amasa-Villabonan %35-40 bitarteko partaidetza zenbatu du Tolosaldea Txukunek

Asier Imaz

Tolosaldea Txukunek hiru herritan galdeketak antolatu zituen asteburuan, atez ateko hondakin bilketa sistemaren inguruan. Amasa-Villabonan, Anoetan eta Iruran parte hartzea %35 eta %40 bitartekoa izan dela esan dute plataformatik. Guztira, 2.600 bozka inguru zenbatu dituzte, eta hauetatik 17 bakarrik izan dira atez atekoaren aldekoak, Tolosaldea Txukunek jakinarazi duenez.

Bilketa sistema berriaren alde-

↓ Iragarki laburrak

LANBILA

Etzeko lanetarako. Goizetan, etzeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperientzia handiko emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea ere badauka. 943 696882 / 606 521992

Hauxe Garbitasunak:

Garbiketa orokorrak: etxeak, bulegoak,... aurrekontua eskatzeko, deitu konpromezurik gabe 681152494 telefono zenbakira.

ETXEBIZITZA

Alokagai. 80 m² eta 2 logela dituen etxebizitza alokatzeko aukera dago Iruran. Interesa duen edonork, 636 530 000 telefono zenbakira dei dezake informazio gehiago eskuratzeko.

ko herritarrek, aldiz, euren zenbaketa egin dute, botoa ematera joan diren herritarrek kontatuz. Datuak datu, gaiak sortzen duen hika-mika berriro ere agerian geratu da, bai asteburuan eta baita ondoren ere, balantzeak egiteko garaian.

Atez atekoaren aldeko plataformak oso kritiko agertu dira galdeketekin: «Botoa ematera joan diren asko ez ziren herritarrek, eta beste asko behin eta berriz sartu dira botoekin; ikuskaritza ukatu zaigu, eta prentsari ere sarrera debekatu diote; Zizurkilen eta asteburu honetan gertatua ikusirik, argi dago ez dutela sinesgarritasunik, hau ez da serioa». Irura, Anoeta eta Amasa-Villabonako plataformek atez atekoaren garaia dela aldarrikatu dute, eta «konfrontazioak» alde batetara uztea eskatu dute, garbi jokatzeko eskatuz.

Tolosaldea Txukuneko bozeramaileak, Patxi Amantegik, partaidetza nahi baino baxuagoa izan dela esan du. Herri galdekete, gainera, beherako joera izango dutela aurreikusten du Amantegik, «egoera gero eta nahasia goa eta gaiztoagoa delako». Gipuzkoa mailan, Legazpin herritarren %51 zenbatu zuen atez atekoaren aurkako bertako plataformak; Zizurkilen %41 Tolosaldea Txukunek, eta asteburuan, %35-40 artean ibili dira parte hartze datuak.

↓ Datuak

TOLOSALDEA TXUKUN

- **Amasa-Villabona.** 1.625 boto, errodaren %36.
- **Anoeta.** 498 boto, errodaren %35.
- **Irura.** 464 boto, errodaren %40.

ATEZ ATEKOAREN ALDEKO HERRI PLATAFORMAK

- **Amasa-Villabona.** 1.533 herritar, errodaren %35.
- **Anoeta.** 445 herritar, errodaren %31.
- **Irura.** 441 herritar, errodaren %35.

Amasa-Villabonan, azkenik, uztailearen 7an jarriko dute atez ateko sistema «mixtoa». Organikoa, ontzi arinak eta errefusa bilduko dira soilik atez ate; beira, papera eta kartoia, pilak eta arropa, berriz, orain artean bezala, edukiontzien bitartez.



Zizurkilgo udal ordezkariak prentsaurrekoa eskaini zuten atzo. A. IMAZ

«Gezurren garaia» amaitzea nahi du Zizurkilgo Udalak

Ondorengo egunetan ere atez atekoako ontziak hartzeko aukera egongo da Zizurkilgo Udalaren bulegoan

A. Imaz Zizurkil

Zizurkilgo Udalak iragan asteburuko gertakariaren balantzea egin du. «Gezurra» hitza erabili dute behin eta berriz prentsaurrean Zizurkilgo Bilduren hautetsiek, eta garai berri baten beharra aldarrikatu dute. Tartean, EAJri kritika oso zorrotzak egin dizkiote: «Gezurren garaia amaitzea nahi dugu Zizurkilen. Dei bat egiten dugu horretarako. Gezurra erabili baitu EAJk hondakinen kudeaketari lotuta aurkari politikoa erasotzeko. Atez atekoaren aurkako 1275 sinadurarena, hori izan da hilabeteetan entzun dugun gezurretako bat. Horregatik eskatzen genizkien sinadurak eta sekulakoak eta bi esan dizkigute jarri hori dela eta. Bistan geratu da orain zergatik ez zizkiguten eman nahi, gezurra zelako».

Zizurkilen iragan astean egin zuten atez atekoaren inguruko galdeketa, eta bertako irudiak hizpide izan dituzte: «Euren boto gosearekin edonoren botoak edozein modutara onartu dituzte, eta larriagoa dena, udal honetako zinegotziek jendea tranpa egitera bultzatu dute. Ikusi bestela bideoak. Eta oraindik 'fede onaz' hitz egiten dute. Kamera aurrean egin berri dutena ez dutela egiten eta ez dutela onartzen esateko gai diren zinegotzien fede ona».

Galdeketa egiteko udalak trabak jarri izana ere gezurra dela esan dute udal zinegotziek: «Udal honek eskatutako tresneria eta eraikina utzi zuen deitzaileen esku. Trabak izatekotan ere, eurak jarri dizkiete ikuskari egin nahi zuten pertsoneri. Eta badaki-

gu bai zergatik». Boto delegatua «fartsa» bezala izendatu ondoren, zizurkildarren herenaren babesa izatera ez zirela iritsi esan du udalak, eta botoa ematera joan zirenen artean zizurkildarrak ez zirenak ere izan zirela salatu nahi izan du: «Argiaren faktura batekin bozkatzen uzten bada, gero ezin da herritarren erolda erabili portzentaia ateratzeko. Hori gezurra esatea da».

Bost mezu

Galdeketa inguruko hausnarketaren ondoren, bost mezu plazaratu ditu udalak. Lehenik eta behin, zizurkildar guztien iritziak kontuan hartuko dituztela esan dute udal zinegotziek: «Oztopoak oztopo, herrian badago oso zabaldua dagoen sentsazio bat, eta hori, atez atekoari aukera bat eman behar zaionarena da».

Parte hartzea arautuko duen ordenantza baten beharra agerian gelditu dela dio udalak, eta herritarrei eta Zizurkilgo eragilei dei egin die, euren ekarpenak egitera animatuz, ordenantzen inguruan adostasunera iristeko.

Hirugarren mezu bezala, hondakin bilketa sistema berriak ekarri dituen kezak aipatu dituzte udaletik. Horregatik, sei hilabete barru, herritar guztien iritziak biltzeko konpromisoa hartu dute udal zinegotziek.

Atez atekora bildu ez diren herritarrei, oraindik ontziak jasotzeko aukera zabalik dela esan die udaletik: aste honetan eta hurrengoan, astelehenetik ostiralera, 15:00etatik 19:00etara, Aurrera plazako bulegoan.

Azkenik, eta bosgarren mezu bezala, udalak eskerrak eman dizkie «intoxicazio kampania handi honen erdian babesa eman digutenei, eta bereziki, hondakinen kudeaketan arduratsu jokatzeko. Trabak izatekotan ere, eurak jarri dizkiete ikuskari egin nahi zuten pertsoneri. Eta badaki-





M. IRAOLA

Patxi Amantegi • Tolosaldea Txukuneko bozeramailea

Anoetan, Iruran eta Amasa-Villabonan herri galdeketa antolatu ditu Tolosaldea Txukunek, eta balantzea egiterako garaian, autokritikarako tartea hartu du Patxi Amantegik.

«Zakarrak jasotzeko moduen auzi honek bere funtsa galdu duela uste dut»

Asier Imaz

Atez atekoaren inguruko galdeketa gertutik jarraitu ditu Patxi Amantegik, Tolosaldea Txukun plataformako bozeramaile izatea tokatu baitzaio.

Asteburuko galdeketa inguruan, zein da Tolosaldea Txukunen balantzea?

Parte hartzea nahi baino baxuagoa izan da, eta galdeketa egiten goazen heinean are gehiago jaitsiko dela uste dut, egoera gero eta nahastuago eta gaiztoagoa baita; jendeak ez du joan nahi. Gainera, kontuan izan behar da galdeketa egin ditugun herri hauek atez atekoa ezarri dutela jada; beraz, jendeak pentsatuko du, «zertako gehiago liskartu?»; ez dauka atzera bueltarik, eta hori da jendeak sumatzen duena. Udal guztiek kanpaina gogorra egin dute azken aste honetan, jendea desmobilizatu dute, bozkatzera joateko arrazoiak eta gogoak kendu diete, beldurtu egin dituzte... Mila kasu egongo dira.

Ez al da joan dena urrunege?

Bai, gezurra dirudi. Zertaz ari gara? Zakarrak jasotzeko moduez, eta nire ustez galdu egin da funtsa. Guk *gaixotutako gizartea* esapidea erabili izan dugu. Hemen izan dira mila hildako eta... eta inor ez da kalera atera. Orain

zakarren kontuarekin ari gara erabat mobilizatzen. Hau zer da? Nik uste dut edalontzia gaitzitzen duen tanta dela. Jendeak adar jotze moduan hartu du hau, izan ere, inposizio asko daude: zergak igotzea, abiadura handiko trenak, ... Baina hau, jendeak uler-tu eta onartu ez dituen modu eta argudio batzuekin iritsi da, eta herritarrek irain moduan hartu dute. Gainera, plataformako ki-deoi herrietan ere, ez digute inongo kasurik egin; lekuetara joan garenean argazkia ateratzea bakkarrik joan gara, eta erabiliak sentitzen gara. Auzi honek hasieratik beste modu batera hasi behar zuen. Nire ikuspuntutik behintzat, eta datuak argi erakutsiz gero, hau ez zen honaino iritsiko, alkateek ere atzera egingo zutelako. Izan ere, sistema ez da sostengatzen, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako argudioak ez dira egiazkoak eta.

Ordizian ikuskaritza bai, Tolosaldean ez... Zergertatu da hor?

Ni bozeramailea naiz, eta herri bakoitzean erabakitakoa helarazten dut, ados egon ala ez egon; herri bakoitzak berea antolatzeke aukera dauka, eta baita eskubidea ere. Ordizian, kazetariei eta politikari guztiei utzi diete sartzeko, baina hemen arau batzuk jartzea erabaki zuten: bozketan

ateratako emaitza onartzen ez zuten politikariak ez zirela bertara sartuko. Gero, ordea, milaka trikimailu egin dituzte, mahaietan presentzia izateko, eta hor sortu dira iskanbilak. Alderdi politiko moduan arau horiek ez onartzea erabaki dute, baina herritar gisa sartu nahi izan dute, eta ezezkoa esan diegu.

Eta kazetarion aurkako jarrera hori? Amasa-Villabonan kanporatuak izan ziren modu txarrean.

Zizurkilen sortu zen arazoa, izan ere, ez genuen oztoporik jarri eta jende guztiari sartzeko utzi genion. Sekulako iskanbilarekin topo egin genuen, eta inozoan moduan geratu gara. Berritua gauza bera ez gertatzearen, ordaindu behar ez zutenek ordaindu dute, eta barkamena eskatzen diegu. Azken finean, horrelako egoeretan gauzak gaizki egiten dira, noski baietz, eta presio egoera horretan, ez dugu buru hotzarekin jokatzeko asmatu.

Boto delegatuan aldaketa egon da Zizurkildik asteburu honetara.

Baina ez du ezertarako balio izan. Ahalik eta zorrotzen jokatu dugu, baina ezin izan dugu guztia behar bezala berretsi. NANaren fotokopia eskatu genuen, eta nolabait behartuta geunden trabak jartzea; jarriko ditugu, baina aurreko bozketak egoera bera zen.

Zumardiaundiko kioskoko lanpostua lehiaketara atera dute

Datorren uztailaren 8a baino lehen aurkeztu beharko dira ustiapen proposamenak, Tolosako udaletxean

Itzea Urkizu Tolosa

Tolosako Zumardiaundiko kioskoaren ustiapena lehiaketara ateratzea erabaki du udalak, eta interes dutenek uztailaren 8a bitarte aurkeztu ahal izango dute beren proposamena, 09:00etatik 13:00era bitarte.

Hasiera batean, kioskoaren esleipena sei hilabetekoa izango da, eta bi aldeak ados jarri gero, beste sei hilabeterako luzatu ahal izango dute kontratua. Tolosako Udalak «bizia» eman nahi dio parkeri, azaldu dutenez, eta era berean, «jendeari inguru eder eta atsegin horretara gerturatzeko beste aitzakia bat» eman nahi diote. Honez gain, herrian enplegua sortzeko eta langabezia murrizteko beste pauso txiki bat ere izango dela azpimarratu du udalak, bereziki lanik ez dutenei zuzenduriko egitasmoa baita.

Datorren uztailaren 8an bildutako proposamen guztiak baloratuko, eta abantailen arabera zerrenda osatzeko, hainbat irizpide zehaztu ditu Tolosako Udalak. Horrela, beraz, 2013ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik Tolosan bizi, eta inongo diru laguntza eta sorospenik jaso gabe langabezia

dauden herritarrek irizpideetako bat beteko dute. Era berean, langabezia egon eta sorospena jasotzea ere irizpideetako bat izango da; hauek, sorospena jasotzeagatik, puntu gehiago izango dituzte zerrendan.

Hirugarren irizpidea aurrekoen bertsua da, baina Tolosaz kanpo, eskualdean bizi diren herritarrei begirakoa. Azkenik, Tolosaldekoak izan eta 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen langabezia erreferentziarik ez duten herritarrek, nahiz bestelako egoeretan daudenek ere, kioskorako proposamenak aurkezteko aukera izango dute.

Parte hartzeko bideak

Zumardiaundiko kioskoa ustiapen proposamenak postaz, telefaxez, nahiz baliabide telematikoa eta elektronikoa bidez helarazi ahal izango dira udaletxera, eta izenburuztat *Zumardiaundiko kioskoaren parte hartzeko proposamena* erabilia. Honi dagokionez, Tolosako Udalak zera nabarmendu du, herritar bakoitzak proposamen bakarria aurkeztu ahal izango duela.

Gainera, aipatzekoa da kontratatzaileak ez duela inongo kanon, fidantza edo alokairurik ordaindu beharko.

Informazio gehiago eskuratu, nahiz kontrataziarako plieguak kontsultatu nahi dituenak, www.tolosakoudala.net ataria bisita dezake.

• tolosa@hitza.info

Igerilekuan literaturaz goatzeko aukera abian da irailera bitarte

Udako liburutegiak liburu maileguaz gain wifia, egunkariak eta beste hainbat zerbitzu eskainiko ditu Usabalen

I. Urkizu Tolosa

Usabal kiroldegiko igerilekura irakurzaletasuna eramane, eta jendearen aisialdia betetzeko helburuz, irailaren 7ra bitarte zabalik izango da udako liburutegia; astelehenetik larunbatera bitarte eskainiko dute zerbitzu hau, 15:00etatik 19:00ak arte.

Egunkariak, aldizkariak, ko-

mikiak, eleberririk, turismoko gidaliburuak nahiz sukaldaritzari buruzko liburuak daude eskuragarri, eta bertan irakur daitezke. Hala nahi izanez gero, eta liburutegiko harpidedun izanez gero, berriz, maileguan ere hartu ahal izango dira liburuak. Gainera, aipatzekoa da harpidedun txartela egin nahi duenak igerilekuko liburutegian bertan eskuratu ahal izango duela, momentuan.

Honekin batera, wifi zerbitzua ere eskainiko diete Usabaleko erabiltzaileei, eskuko ordenagailuekin hara joan eta sarera konektatu nahi dutenentzat.

• tolosa@hitza.info

Herrietako festen zerrendatik pasa dira San Pedro jaia; horrez gain, turismoa jasangarria, autoak, betizua edota moztuak izan dira.

Jaien lekuko alde batetik bestera dabil

Enaitz Maiz

Asteburua, Leaburu, Areso edota Tolosako Urkizu auzoen ospatu dituzten San Pedro jaia. Asteburua bete-betean izan dituzte herrietan, eta herritarrek eta bertaratuak jai giroaz gozatzeko aukera paregabekoa izan dute. Jai eta edonik ez da faltatu inon, eta kirol ikuskizunak, dantza, musika edota eskera ere izan dira.

Jai hauek antolatzaileek haurrak, gazteak eta helduak izan dituzte gogoa egitarauak prestatzean. San Pedro egunez, Urkizun esaterako, auzoko txikiak jolasez gain, bazkaria izan zuten. Asteazken, herriko ia musikari guztiak jai ziren taula gainera, herritarren aurrean kantua eskaintzeko. Aresen, pasaka partidak ikusi ahal izan zituzten herriko pilotalekuan eta Leaburun, herriko dantzarien emanaldiz gain, hamaitakoa eta gazteoen futbol partidak izan zituzten. Jaien lekuko alde batetik bestera dabil.

Jaiak alho-batera utzita, Larraitzan ere beste era bateko festa izan da hiru eguez. Turismo aktibo jasangarriaren lehen azoka izan zen. Ekitaldi bereko hiru eguez gozatu dute Txindokiko Itzala naturgunea izan direnek. Turismo aktibo iraukerak duen garrantzia jabetu nahian izan zituzten bertaratuak jarraiera bertan izateko. Ekobira azoka, abentura gunea, mendi lasterketak, jolasak, hitzaldiak, talerak... izan ziren.

Autozaleen topaleku izan da,

beste urte batez, Ibarra. Larunbat goizean, herriko plaza izan zuten esenatoki. Auto eta autozale ugari elkartu zen. Estilo, kolore, marka eta tamaina guztiak 100 bat auto ikusiko aukera izan zuten bertaratu zirenek. Egun jesa egita zuten autozaleek, eta Alegian bazkaldu ostean, Tolosako Karting-era joan ziren.

Urtaro bezala, Amezketako Ugarte auzoko elkarteak betizu jatea antolatu zuen, larunbatetik haur eta heldu, elun pertsona inguru elkartu ziren Ugarteko pilotalekuan. Goizeko ordu biak aldera jarri zuten betizua erretzen, eta eguerdiko ordu biak arteko lana izan zen. Joseba Zubeldiaren gidaritzapean errea izan zen betizua. Bapo jan, eta giro ederrean ipiratu zuten eguna.

Mozorroak, Tolosan
 Aurten go oxaloko inauterietan euri asko egin zuen. Mozorroetako hiru egunetan ez zuen lagundu eguraldiak, eta tolosar talde batek eskainia Mozorro Eguna egitea proposatu zuen. Eta baita egin ere. Eguzkia lagun zutela, eguerdian Txindokiko plazan elkartu ziren, eta sartak ere banatu zituzten.

Tolosako Kanutu jira taldeak 5. urteurrena ospatu du. Oñibekala, 12.00etan elkartu ziren eta Tolosako kaleak kantuz jantzi eta alaitu zituzten, hainbat herritar kantuzan jarri. Ondoren, bazkaria izan zuten.

Albiste guztiak argazkiak edota bideoak sarean daude ikusgai:
tolosaldea.hitza.info



Leaburu | Txindokiko dastaketa egin zuten pintxo eta guzi, Leaburuko jailetan. © NE AIZENBERG



Areso | San Pedro egunez, herritar talde bat baserri baserri eskean ibili zen. © IMAZ



Urkizu | Urkizu auzoko festetan, San Pedro egunean, hauek bazkaria izan zuten. © IMAZ



Asteasu | Baurinaren aldeko ekitaldia, eta herriko txistularien saioa, musika jaialdiaren barruan. © IMAZ



Abaltzisketa | Turismo esperientzia iraukerak zabaldi dituzte. Larraitzan, Hiru egunetan, ekitaldi ugari izan dira haur, gazte eta helduak zuzenduz. © NE AIZENBERG



Amezketako | Ugarte auzoko elkarteak antolatuta, haur eta heldu, 100 pertsona inguru elkartu ziren betizua jateko auzoko pilotalekuan. © IMAZ



Ibarra | Autozaleen bilgune izan zen Ibarsko plaza, larunbat goizean. Mota, kolore eta tamaina guztiakoko autoak ikusi ahal izan ziren eta jende ugari gerturatu zen. © IMAZ



Tolosa | Inauterietan ez bezala, eguraldi lagun izan zuten Mozorro Egunean. © IMAZ



Tolosa | Bost urte bete ditu kanutu jira taldeak, eta urteurrena kantuan ospatu zuten. © IMAZ

Mauka
 GAIKURKO EKIBANITZA
Igartubeiti-ara bisita gidatua eta otordu ederra
 ARGINDEGI OSTIAVA 2017/150 2019
 PREZIOA **28€**
berria
www.mauka.eu



Igdandean jokotutako Su-Berri paleta txapelketako finalista. HITZA

Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea, San Fermin txapelketako finaletik at

Tolosak irabazi egin du Bidegoianen aurka Herriarteko Pilota Txapelketan, eta finalean ariko da

Mikel Iraola

Ez da Leitzaldeko pilotaririk izango igande honetan Iruñeako Labrit pilotalekuan jokotuko den San Fermin txapelketako finalean. Abel Barriolak eta Oinatz Bengoetxeak finalaurrekoetan ezin izan diete Martinez de Irujo eta Aimar Olaizolari irabazi, eta buruz buruko finalean aritu ziren bi pilotariak ariko dira nor baino nor Nafarroako lau t'erdiko txapela irabazteko.

Bengoetxeak ez zuen aukerarik izan, parean joko aldetik une ezin-hobean dagoen Aimar Olaizola izan baitzuen parean. Goizueta-rrak defentsa izugarria egin eta tantoak amaitzerako orduan asmatu egin zuen. 13-12ko emaitzara arte partida parekatua izan zen, baina leitzarrak hainbat akats egin eta Olaizolak markagailuan alde egiteko aprobetxatu zuen eta 22-17 irabazi zuen. Bengoetxeak, beraz, ezin izango du hirugarren jarraian txapela eskuratu.

Barriolak ere aurkari zaila izan zuen parean. Buruz buruko finala galduta ere, Martinez de Irujo in dartsu irten zen Zarauzko Aritzabalde pilotalekura. Bengoetxea eta Olaizolaren arteko partidaren bezala, erdialdera arte parekotasuna izan zen nagusi. Zazpina izan ziren, eta hortik 11-14kora pasa ziren. Handik aurrera, Irujo erakustaldia eman zuen, 12-22 irabaziz. Abelek zortzi pilotakada galdu

zitu eta amaieran hori nabaritu zuen. Beraz, iberotarrak duela astebete galdutako txapelaren kolpetik errekuperatzeko aukera izango du aurkari beraren kontra.

Tolosa, finalera

Bestalde, Tolosak Herriarteko Pilota Txapelketako finala jokotuko du Bidegoiango taldeari irabazi ostean. Bigarren kanporaketan Bidegoian izan da irabazlea, jubenetan (19-22) eta nagusien mailan (14-22) garaipena lortuz, baina tanto kopuruari erreparatuz (11-77), Tolosak lortu du azkenean finalerako txartela. Txapelketa hasi zenetik, Zumarraga, Berrobi, Hernani eta Bidegoian hartu ditu mendean Tolosak, eta 1975az geroztik iritsi ez den finalerako txartela lortu du. Urte hartan, Azkoitiaren aurka galdu zuen, eta aurtun, Oiartzun izango du aurkari. Kadeteen mailan, Eguiguren eta Peñak osatutako bikoteak jokotuko du; jubenetan, Mujika eta Beloki izango dira; eta senior mailan, berriz, Mujika eta Errazkin. Finalak, igandean izango dira Donostiako Atano frontoian.

Su-Berri txapelketako finalak

Su-Berri txapelketako finalak jokatu ziren herenegun Irurako Ametsa trinketeen. Lehen eta promozio mailako bi finaletan lehenengo joko oso borrokatua izan zen, 15-14ko emaitza egon zelariki. Baina bigarren jokoan txapela lortu duten bikoteek hasieran aurreeratze lortu zuten eta amaiera arte lortu zuten beraien tarte mantentzea. Lehen mailan, Evaristi eta Housset izan dira garaile, Etchelecu eta Saez mendean hartu ostean. Etorkizuneko-

↓ Emaitzak

SAN FERMIN TXAPELKETA

Bengoetxea	17
Aimar Olaizola	22

Barriola	12
Martinez de Irujo	22

SU BERRI TXAPELKETA

Nagusien maila		
Evaristi-Housset	15	15
Etchelecu-Saez	14	11

Etorkizuneko maila

Huizi-Andueza	14	9
Irazustabarrena-Contin	15	15

GIPUZKOAKO HERRIARTEKO PILOTA TXAPELKETA

Tolosa	1
Bidegoian	2

en mailan, Irazustabarrena eta Contin izan dira hobereak, Huizi eta Anduezen aurretik. Antolatzaleak oso gustura agertu dira lehen edizio honekin, eta datorren urtean errepikatzeko asmoa dutela adierazi dute.

Patxi Jauregi, presidente

Patxi Jauregi izango da Euskadiko Pilota Federazioko lehendakaria. Alegiarrak 86 boto jaso ditu hauteskundeetan, eta Fernando Azkaratek, berriz, 63 boto. Bestalde, Alegiako III. Pilota Txapelketako bigarren finalerdiak jokatu dira asteburuan. Kadeteetan, Oiarbide eta Aizpuruk 22-19 irabazi zuten Iturbe eta Salegiren aurka. Nagusien mailan, Artola eta Tolosa izan ziren garaile, Azpiri eta Arratibelek osatutako bikotearen aurka, 22-16ko emaitzarekin.

Europako Pista Txapelketarako sailkatu da Iriarte

Mikel Matxineak irabazi du jubencil mailako Gipuzkoako Itzulia; Xabi San Sebastian, bigarren izan da

M. Iraola

Ane Iriartek Europako Pistako Txirrindularitza Txapelketarako txartela lortu du. Oriako Txirrindulari Elkarteko gazte tolosarrak pasa den asteburuan Madrilen jokotutako sailkatze proban gutxieneko denbora egitea lortu eta sailkapena eskuratu zuen.

Mutiletan ere izan zen eskualdeko txirrindularien parte hartzea Madrilgo proban. Oriakoko Xabi San Sebastian eta Jon Iriarri izan ziren. Lasterketa onak jokotutakoak, ez zuten lortu Europarako txartela.

Bestalde, jubencil mailako Gipuzkoako Itzulia jokatu da astebu-

ru honetan, eta emaitza bikainak lortu ditu Oriakok. Izan ere, jokotutako lau etapan ondoren, Mikel Matxinea izan da itzuliko garailea. Xabi San Sebastian taldekidea, berriz, bigarren izan da.

Aian amaitu zen lehen etapan bigarren egin zuen Matxineak. Iriarri eta San Sebastian laugarren eta bostgarren izan ziren hurrenez hurren. Olaberriako bigarren lasterketa San Sebastianek irabazi zuen, helmugan Matxinearekin batera iritsita. Azken hau lider moduan jarri zen. Andoaingo hirugarrenean, berastegierra hirugarren izan zen, eta tolosarra laugarren. Seguran jokotutako azken etapan, berriz, San Sebastian laugarren izan zen, Matxinearen aurretik.

Sailkapen orokorrean, Matxinea izan zen hobereak. San Sebastianek mendiko mailota eskuratu zuen, eta taldea ere tolosarrak hobereak izan ziren Caja Ruralen aurretik.



Mikel Matxineak irabazi du Gipuzkoako Itzulia. HITZA

Joxe Gabirondo gazteluarrak irabazi du Euskal Herriko Segura Liga

M. Iraola Gaztelu

Joxe Gabirondok irabazi du Euskal Herriko Segura Liga. Aurreko bi jardunaldietan irabazi ondoren, txapela bideratuta zuen gazteluarrak, eta igandean laugarren izan zen. Azpeitiko Ikasberri ikastolako belardietan 100 metro karratuko saila moztu behar izan zuten, eta Igor Esnaola irabazleak baino minutu eta erdi gehiago behar izan zuen. Garaipen honekin, irailen Tirolen jokotuko den Europako Txapelketan izango da.

Hirugarren izan da Berrobiko giza proba taldea lehen kanporaketan

M. Iraola Berrobi

Gipuzkoako Giza Proba Txapelketako A multzoko kanporaketako lehen jardunaldia jokatu da asteburuan Orioko plazan, eta eskualdeko talde bakarrak, Berrobik, hirugarren postua lortu du. Etxeko taldea izan da garaile, 47 plaza egitea lortu ondoren. Bigarren, Deba izan zen 44 plaza osatu eta gero. 43 plaza, zinta bat eta 5, 12 metro egin zituena Berrobik, eta 39 Mendarok. Bigarren jardunaldia, Mendaron jokotuko dute, uztailaren 16an.

Rekondok ezin izan du Mugertza gainditu Urrezko Aizkorako bigarren proban

Jon Irazu zizurkildarrak bigarren postua eskuratu du Gipuzkoako Bigarren Mailako Txapelketan

M. Iraola Leitza

Urrezko Aizkorako bigarren jardunaldian lehiatu da Jon Rekondok leitzarra, eta ezin izan du Mugertza II.a mendean hartu.

Ondategin herenegun jokatu-tako proban, Ugaitz Mugertza mutrikuarrak eraman zituen bi puntuak, sei modalitate ezberdinetan hamar enbor ebaki eta gero. Horretarako 19 minutu eta 27 segundo behar izan zituen irabazleak. Leitzarrak, ordea, 21 minutuan amaitu zituen egin beharreko lanak, eta oraindik ez du puntu bakar bat bera ere lortzerik izan.

Egoera berean da Joseba Otaegi. Zizurkildarrak ostegunean ezin izan zuen Aitzol Atutxa menderatu eta oraindik ez du puntuarik lortu. Horretarako hurrengo aukera uztailaren 16an izango dute, Amorebietan jokatu den jardunaldian.

Irazu, bigarren

Bestalde, Gipuzkoako Bigarren Mailako Aizkolarik Txapelketako finalean bigarren postua lortu du Jon Irazuk. Lau kana-erdiko eta 60 ontzako bi enbor ebaki ondoren, zizurkildarra Mikel Larrañaga azpeitiarraren atzetik sailkatu zen.

Irabazleak 13 minutu eta 15 segundo behar izan zituen, eta Irazuk 14 minutu eskas. Hirugarren izan zen Mugertza II.a, 14:16ko denbora egin ostean. Txapartegik laugarren postua eskuratu zuen, zortzi segundo gehiagorekin. Zaldia izan zen bosgarren (16:31), eta azken sailkatua Telletxea izan zen 17 minutu eta 11 segundo behar izan ondoren.

Eskualdeko atletak bikain aritu dira Euskadiko Kadete Txapelketan

4x100 metroko errelebo proban txapeldun izan dira Lara Torregaray, Irati Mitxelena, Ane Galarza eta Naia Otegi

M. Iraola

Eskualdeko atletek maila bikaina eskaini dute Durangon jokatu diren Kadeteen Euskadiko Atletismo Txapelketan. 18 proben ondoren, nesken taldeak bigarren postua eskuratu du Txindokiren atzetik. Bakarka ere emaitza paregabeak lortu dituzte.

4x100m erreleboen proban, garaipena eskuratu dute Lara Torregaray, Irati Mitxelena, Ane Galarza eta Naia Otegi. Euskadiko txapeldun izendatuta, Espainiako Txapelketara joateko aukerak dituzte, Espainiako laugarren marka hobereana baitute. Horrez gain, brontzezko beste hiru domina eskuratu ditu Mitxelenak: 100 m hesietan (15.87), pertigan (2.00 m) eta salto hirukoitzean (10.60m).

Gainontzeko neskak podiumetik hurbil sailkatu dira. Lara To-

rregaray, adibidez, laugarren izan da 100 metroetan (13.12s), Espainiako Txapelketarako marka gutxienezkotik bi ehunenetara. Maddi Marquet ere laugarren izan da 600 metroko proban, 1:49:15 denbora egin eta gero. Postu berean sailkatu dira Ane Galarza luzeran (4.58m), Maria Alvarez mailuan (33.49m), eta Maddi Marquet, Ane Etxeberria, Naia Vazquez eta Nerea Ixmucanek osatutako errelebo 4x400 metroko proban. Ane Etxeberria, Olatz Marquet, Alaitz Santos, Leire Lopez eta Marina Aldalurrek ere parte hartu dute.

Mutiletan, beriz, ez zen taldea osatzerik lortu, baina hainbat domina eskuratu dituzte bakarkako probetan. Disko jaurtiketan Aitor Plazaolak zilarrezko domina eskuratu du, 31.75 metroko jaurtiketa egin eta bere marka pertsonala hobetuz. Brontzezko beste bi domina lortu dituzte: Iker Garatek 100 metan, Espainiako gutxienezko markatik bost ehunenetara geratuz (11.95); eta bestea 4x100 m-etako errelebo taldeak. Azken hau Iker Garate, Aitor Plazaola, Julen Madera eta Mattil Jauregik osatu dute.



Txapelketan parte hartu duen nesken taldea. HITZA



Txubel eta Arevalo, azken honen aurkezpenean. LAUBURU K.E. IBARRA

Aitor Arevalo izango da Lauburu Ibarako entrenatzailea

Hamarkada batean entrenatzaile izan den Juan Pablo Zubelzu ordezkatuko du gazte billabonatarak

M. Iraola Ibarra

Aitor Arevalo izango da Lauburu K.E. Ibarra taldeko entrenatzailea datorren denboraldian. Billabonatarak Txubel ordezkatuko du, izaz Bigarren Nazional mailara igoera lortu ostean.

Arevaloren gaztetasuna -25 urte ditu- ez dator bat areto futbolaren munduan duen esperientziarekin. Izan ere, bigarren mailako areto futbol entrenatzaile titulua lortu ondoren, Ermio Urbea BHI taldea zuzendu zuen 17 urte zituela. Lau urtez izan zen bertan, 2009-2010 denboraldian hirugarren mailako Transportes Lakunza taldeak fitxatu zuenera arte.

Hurrengo denboraldian Debarrena taldeko bigarren entrenatzaile izateko eskaintza onartu

eta orain artean izan da horretan. Azken urte honetan, gainera, elgoibartarren bigarren taldeko entrenatzaile ere izan da. Horrez gain, Gipuzkoako Jubenilen Areto Futboleko hautatzailea da.

'Txubel' ordezkatuz

Hamarkada batez taldearen buru izan den Juan Pablo Zubelzu Txubel-ek utzitako hutsunea beteko du Arevalok. Azken urteotan lanarekin uztartzeko zituen arazok medio, entrenatzaile kargua utzea erabaki du Zubelzuk. Klubak, eskerrak eman nahi izan dizkio «urte hauetan egindako lan onagatik», tartean bi liga irabazi baititu talde ibartarrak.

Hemendik aurrera, administrazio lanetan aritzeaz gain, Txubel jubenilen taldeko entrenatzaile izango da. Hainbat urtetan talderik gabe egon ostean, jubenilek aurtin berriro ere taldea izango dute. Pasa den ostegunean izan zen lehen hautaketa fasea, eta prestatzaileak «oso pozik» agertu dira, guztira 21 futbolariak parte hartu baitute.

Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

MAGDALENA OTAEGUI ORBEGOZO

(Miguel Inchaustiren alarguna)

- Goian bego -

Atzo hil zen, 85 urte zituela, Elizakoak eta Aita S. B. hartu ondoren.

Bere seme-alabak: Miguel Angel, Mikel eta Beatriz Larrañaga; bilobak: Miguel Angel, Toni, Luis; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otolitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela GAUR ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN PIO X parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik mila esker.

Helbidea: Errenteria kalea 5

Oharra: Gorpu belia Errekalde auzoko VASCONGADA EHORZKETAKO tanatorioan egongo da, gaur asteartea goizeko 10:15ak arte.

DONOSTIA, 2013ko uztailaren 2an




Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info


Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak: BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Amezketan.** Txalaparta ikastaroan izena emateko aukera dago. Irailean zehar oinarriko ikastaroa eskaini nahi da Amezketan, eta hilaren 10a bitartean izena emateko aukera zabalik dago. Informazio gehiagorako edota izena emateko deitu, 695 71 26 10 telefono zenbakira deitu behar da.

■ **Berastegi.** Berastegiko udaleko kultura batzordeak Leiho, balkoi eta terraza, lorategi eta baratze txapelketak antolatu nahi ditu. Horretarako izen emate epea jarri du, eta interesatuek hilaren 12a baino lehen eman beharko dute izena. Udaletxeko harrera bulegoan edota 943 68 30 00 telefono zenbakira deituz eman daiteke. Guztira bederatzita sari banatuko dituzte, sail bakoitzeko hiru.

■ **Ibarra.** Ibarra Udalak euskara ikasten ari direnei zuzendutako diru laguntzak eskatzeko epea zabaldu du. Ibarra erroldatuei zuzendua da, eta euskaltegi edota barnetegi batean euskara ikastaroa egin izan beharko dute. Interesatuek, besteak beste, eskaera orria, nortasun agiriaren fotokopia, matrikula ordaindutako agiria eta ikastaroa egin denaren ziurtagiria aurkeztu beharko dituzte.

ANTZERKIA

■ **Tolosa.** Amaroako XV. Antzerki Astearen barruan, 18:00etan, Ipotx Zirkolosa, Txapitxapo kale ikuskizuna izango da. 22:00etan, Carlos Perez Aradrosen, Historias de Pitu-Titu emanaldia ikusi ahal izango da, Amaroako auzo lokalean.

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Egunkoia eta gauekoa: Lejeune, L. Euskal Herria kalea, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazita-ko esanien eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Tolosa



HAUR SAHARARREI HARRERA

Tolosako udaletxeko pleno aretoan hasi dute astea, Tolosaldeara etorri diren 23 haur sahararrek. Tolosa, Altzo, Anoeta, Aduna, Alegia eta Amasa-Villabonako alkateek harrera ofiziala egin diete haurrei, eta gozoki poltsa banarekin pozik joan dira. I. URKIZU

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Zorionak Aitor!

Lizartzako ezker abertzalearen partetik, hurrengoan hi ere hemen!

KARIBERA
joan nahi al duzu?

Maukarekin
Karibera doan joan zaitezke!
Izena eman hemen eta parte hartu
Karibera astebete doan
joateko zozketan.

egun-pasak
abentura jatebieak
estetika bidaiak
kiral ikuskizunak
antzerkia

zozketa.mauka.eu

berria® EROSKI